

## Tarifako uhartea.

Tarifako gazteluak hiriaren jatorria gogorarazten du: Tarif, penintsulara heldu ziren lehenengo musulmanen buruzagia zen. Aurrerago, eskuz esku eta erlijioz erlijio aldatzea izango zen gaztelu ororen patua, etxez eta jendez inguratzea izan zen bezala.

Tarif-ek *Camarinal* itsasargi dorreak une oro zaintzen duen *Las Palomas* uhartean kokatzea erabaki zuen.

Laminaria algak ugariak dira uhartearen inguruan. Udazkenero, hostorri handiak erortzen zaizkie, udaberrian berriz kimatzeko.

Bestelako alga motekiko lehian, zenbait abantaila dituzte laminariak. Euren hostorriak itsas-lasterretara modu ergonomikoan moldatzeko gaitu ditu eboluzioak.

Estipe sendo eta errizoide indartsuak dituen hapteroaren bidez edozein oinarri gogorretan sustrai daitezke, harkaitz, anfora nahiz Tarifa inguruko uretan ugariak diren itsasontzi hondarretan.

Hostoan azalera handiarekin, fotosintesarako argi-hartze optimoa lortzen dute. Elikadura kate osoaren abiapuntua fotosintesia da, eta katearen hurrengo mailetan ornogabe haragijaleak aurkitzen dira, anemonak eta itsas izarrak, esaterako.

Baita itsas trikua ere, arantza zuriak eta pozoi guruinak dituena.

Baina, badira beste zenbait kate maila fotosintesia egiten dutenen eta organismo haragijaleen artean: Koraleak bezalako organismo belarjale eta iragazleak. Hauek Tarifako uhartearen ezponda estaltzen dute. Uretatik, zati txiki bat baino azaleratzen ez duen uharte honen ezponda.

Irlaren ur-azpiko aldeetan, argia iristen den tokietan, harrizko hormek espezie aniztasun handiari ematen diote ostantu. Antias arrunta edo bizargina bezalako arrainak hormetara hurbiltzen dira, itsas-lasterrek ekarritako planktonaren bila. Koralezko uharrietan tripa-festa itzela dago.

Adarkadura egiturak ugariak dira ur-azpiko faunan, euren artean gorgonia ezberdinak eta *Astrospartus mediterraneus*, itsas izarraren ahaidea.

Adarkaduraren bidez gainazala handitzea organismo eseri edo mugimendu eskasekoen berezko jokabidea da, elikagaiak jazarpenik gabe harrapatzeko.

Kamuflatze eraginkorraren berebiziko adibide dira gorgoniak. Bizigabeko harriaren itxura hartzen duten egitura mineralen barruan bizi dira itsas-loreak.

Olagarroaren hankek ere bere indarra bikoizten duten adarrak dirudite. Baina, beharbada, ikusmena eta garuna dira bere arma boteretsuenak.

Itzalpeko tokiak eta kobazuloak ilunpetara moldatzen diren organismoen bizitoki dira.

Eta itsasoaren sakonetik, noizbehinka, muxumartina igotzen da. Kolore anitzeko ozelo aposematikoa duen bizkar-hegatseko arantzek, itxura handientsua ematen diote ehiztari bakarti horri.

Eta janaria biltzeko estrategiak ez dira agortzen. Lohitako barbarinak bizarra erabiltzen du jalkinetan animali txikiak eta hondar organikoak biltzeko.

Beste batzuek euren jazarleei arrastoa galarazten diete taldeka eta bizkor mugituz.

Tarifako uhartearen uretan ere, janaria oparora izan arren, norberak jan eta inoren janari ez bihurtzea da legea.